

IRAKASLEAK. LEKUALDATZE LEHIAKETAK

- **Ohiko lanpostuen lekualdatze lehiaketa. Deialdia**

Aurreikuspenen arabera, **2019ko azaroaren 29ko** Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da autonomia mailako lekualdatze-lehiaketaren deialdia ohiko lanpostuen artean.

Eskaerak aurkezteko epea: abenduaren 2tik 19ra, biak barne.

STEILASek, urtero bezala, **HITZALDIAK** antolatu ditu:
(irekiak dira, aforoa betetzen bada afiliatuek lehentasuna izango dute):

GASTEIZ: abenduak 4, 18:00etan Salburua gizarte etxean.
[Izena eman](#)

BILBO: abenduak 2, 17:30ean E. Campuzano LHII (Santos Juanes plaza 7)
[Izena eman](#)

DONOSTIA: abenduak 3, 17:30ean EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko areto nagusian (ez da aforo arazorik egongo, ez da izena eman behar)

- **Lanpostu berezien lekualdatze lehiaketa.** Aurten ere lekualdatze hau gauzatuko da. (IVED, KIROLENE, gela egonkorak, EPA kartzelak...) **Deialdia beranduago aterako da.**

Lanpostu hauek ez dira ofizios esleitzen eta lehiatzeko baldintzak desberdinak dira (adibidez, aurreko destinoan urte bateko antzinatasuna edukita lehiatu daiteke). Karrerako funtzionarioek parte hartu dezakete. Deialdi honetan (bereziak) behin betiko destinoa lortu eta, aldi berean, autonomia erkidego mailako lekualdatze lehiaketan behin betiko destinoa lortu duten parte hartzaileek **bost egun naturaleko epea izango dute**, deialdi honen behin betiko esleipena argitaratzen denetik aurrera, **destino baten edo bestearen artean aukera egiten dutela adierazteko**, eta destinoa baliogabetu egingo da. Aukera hori egin ezean, plaza berezien lekualdatze lehiaketa honetan lortutako lanpostuaz jabetu beharko da (informazio hau behin behinekoa da deialdia atera arte).

HEZKUNTZA EZ DAGO SALGAI

PRIBATIZAZIORIK EZ !!!

www.steilas.eus